



Balioa izango duen diskurtso bakarra hizlariak bertan eskainiko duena izango da.
El único discurso válido será el pronunciado por el orador o la oradora en el acto.

MAITANE IPIÑAZAR
Durango, 2024ko apirilaren 13a

Hemos cruzado el ecuador de la campaña. Reconozco que se me ha pasado volando. El calendario va perdiendo hojas y el 21 de abril se acerca casi sin darme cuenta. Orain dala egun batzuk Sestaon esan nauen eta, zoritxarrez, mantendu behar dot: batzuegatik izango balitz, ez ginateteke kanpaina egongo. Ez daurie gure ideiei edota proposamenei buruz eztabaidatu. Gorabeherarik gabeko kanpaina nahiko leukie horiek, kanpainarik egongo ez balitz bezala. Etxean gera zaitzela gura daurie. Botoa ematera joan ez zaitzela. Egongo da, herri hau gobernatzeko helburua izan arren, kostatuta ahala, proposamenak eta proiektuak alderatzeari uko egingo deutsonik. Herri hau gobernatzeko asmoa izan arren, proiektuak eta proposamenak elkarren aurrean alderatuta ikusteko eskubidea ukatu gurean ibiliko direnak. Ba guk, Euzko Alderdi Jeltzaleak, asko dekogu esateko eta esan nahi dogu! A ocho días de votar, aún nos queda mucho por contar.

Hautagairik onena dekogu! Imanol Pradales! Langilea, herri honetako errealitate sozial eta ekonomikoa ezagutzen dauena eta talde oso baten babesa dekona. Esperientzia eta gaztetasuna uztartzen dauena... Hautagairik onena eta proiekturik onena daukagu! Proposamen zehatzak dekoguz; proposamen bideragarriak dekoguz; errealistak. Etorkizunari begira dagoen orainerako konponbideak dituen proiektua!

La campaña electoral no está para que las y los candidatos nos paseemos... Aunque confieso que estamos haciendo pierna... Está para seguir trabajando. Para contar y explicar que el PNV tiene un camino bien definido para hacer. Pero tenemos que seguir. Nosotras, las y los candidatos... pero también vosotras y vosotros. Si me lo permitís, os voy a poner 'etxeko lanak', porque lo que aquí decimos tiene que llegar a todas las casas de Euskadi.

Jon, gaur gauean lagunekin geratzen zarenean, galdeiezu. Eta, ikasketak amaitzean, zer? Nork eskainiko dizue zuen laneko lehen esperientzia? Zeinek eraikiko ditu Lanbide Heziketa, Unibertsitatea eta lan merkatua lotzeko zubiak? Euzko Alderdi Jeltzalea izango da!

Amets, en algún momento tú y tu cuadrilla querréis irros de casa, emanciparos, ¿no? Explícales que el PNV va a construir al menos 7.000 viviendas públicas y un 40% serán para jóvenes; que ofrecerá ayudas para el alquiler; que si queréis comprar un piso tendréis avales para financiar ese 20% del coste de la vivienda que los bancos no financian.

Mikel, umean karroagaz ikusten zaitut. Parkeko lagunei esaiezu EAJK aitasun eta amatasun baimenak luzatuko dauzela, 24 asteko baimenak emango direla; horrez gain, seme bakoitzeko emoten diren 200 euroko laguntzak haurrak 7 urte bete arte emango direla eta 10 urtetara iritsiko direla familia ugariarentzat edo guraso bakarreko familientzat.

Conchi, cuando quedas los jueves a tomar algo con las chicas diles que, para el PNV, la salud es una prioridad. Reducción de las listas de espera, atención primaria más cercana, contratación de más personal, más recursos para la salud mental... Con centros sanitarios más modernizados y nuevas infraestructuras... ¡Un ejemplo claro Durango! Durango, bai... Hemen! Tendrá un

Centro de Salud de Alta Resolución que mejorará la calidad de la asistencia sanitaria a las personas del municipio y de Durangaldea. Un centro con Atención Primaria, con Pediatría, con Consultas Externas, con Diagnóstico Avanzado como mamografías o con TAC, Hospitalización a Domicilio, Atención Sociosanitaria y con unas urgencias potentes las 24 horas del día. *Porque el PNV tiene proyectos concretos; proyectos realistas. Apuesta segura. Garantía de bienestar. ¡Modelo PNV!*

Tenemos que hacer llegar el mensaje a todas las casas de Euskadi. Toca patear. Toca hacer pierna. Toca difundir todas estas propuestas a nuestras cuadrillas, en el parque, a los del chat de la ikastola... Zure osasunak kezkatzen bazaitu, ezin zara etxean geratu. Etxebizitzak kezkatzen bazaitu, ezin zara etxean geratu. Zure seme-alaben edo zure gurasoen etorkizunak kezkatzen bazaitu, ezin zara etxean geratu.

Apirilaren 21ean, bozkatzera. Apirilaren 21ean, Euzko Alderdi jeltzalea! Aukeratu Euskadi!

Gora Euskadi askatuta!